

**R.M.ª AZKUEREN HERIOTZAREN 50. URTEURRENA**

*Lekeitio, 2001-XI-11*



## R.M.<sup>a</sup> AZKUEREN 50. HERIOTZAREN URTEMUGA

*Lekeitio, 2001-XI-11*

*Miren Jaione Murelaga,  
Lekeitioko alkatea*

Euskal Herriaren moduko herri txikiak herri modura bizirauteko ezinbestekoa da kulturari eta hizkuntzari tinko eustea. Komunitate horreetan, eta gu-rean be bai, jakina, guzti-guztion ekarpena eta esku hartzea behar beharrezkoa da. Danok, gehiago edo gutxiago, zelan edo halan, eskeintzen dogu zeozer, bai-na badira banaka batzuk ikaragarritzko ekarpena eskeintzen deustena herri be-rezitia izateari.

Horretariko bat Resurreccion Maria Azkue dogu. Honek euskararen normalizazioari eta euskal kulturari eskeini deustona neurtu ezina dela esango neuke nik.

Ohorez betetzen nau Azkueren jaioterriko alkatea izateak. Eta espero dot herritar guztiok be halako harrotasuna sentitzea.

Edozein modutan, "Azkue, erraldoi bakarti eta berezia"ren pareko asko-rik ez egon arren, nahi neuke beste herritar batzuk be aittatu eta eupada han-di bana bialdu: Eusebio Maria Azkue eta Mari Carmen Aberasturi, Azkueren gurasoak, Eusebio Erkiaga, Rufo Atxurra, ... Eurok eta gehiagok be emon deuskuena ez da makala izan-eta.

Bagabiz, ba, buru-belarri murgilduta Resurreccion Maria Azkueren edo nahi badozue Don Resuren heriotzaren 50. urteurrenerako ekitaldietan. Eusko Ikaskuntza eta Lekeitioko Udalaren artean antolatutakoari barikuan emon geuntson hasiera. Euskaltzaindia ostera, urte osoan dabil bai Azkue bai Julio Urkijo omentzen. Danon artean, Erakunde Publikoak, kultur taldeak zein ba-nakakoak eskeini deiogun gure herritar handia zanari ondo merezita daukon omenaldi beroa eta kuttuna. Ziur naiz hala izango dala!

Gure aldetik, Udalaren aldetik eta omenaldi honetarako sortu izan dan ba-tzordearen aldetik, gaurkoan beste ekarpentxo bat eskeini nahi dautsogu Azkueri, eta bide batez jakina, herritar guzti-guztioi. Bistakoa da Azkuek itzi-tako altxorra danon ondarea dala. Horrexegaitik, gaur, Irkus Roblesek senti-beratasun apartaz egindako erretratoa eskeini nahi deustogu.

Dana dala, piska baten itxoiteko eskatu behar deustuet, lehenago Andres Urrutia euskaltzainak be berba batzuk eskeiniko deuskuz eta.



## AZKUEREN HERIOTZA: 50. URTEMUGA

*Lekeition, 2001eko azaroaren 11an*

*Andres Urrutia*

Alkate andrea,  
Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkaria,  
Agintariak,  
Lekeitiarrak.

Egun on guztioi:

Azkuek ekarri gaitu, beste behin be, Lekeitio herrira. Haren heriotzatik berrogeita hamar urte joanak dirala-ta, hona hemen herritarrak eta euskaltzaleak batuta, Don Resuren aldeko deduzko aipamenak egiteko.

Nor zan Azkue? Adineko lekeitiarrentzat ezaguna da haren irudia. Gazteentzako, beharbada, ez horrenbeste. Lekeitioko semea, Lekeition jaioa eta hazia, lanaren eta euskalgintzaren eraginak eroan eban Azkue Bilbo aldera. Hantxe ekin eta ekin, euskara eta Euskal Herriari jagokon guztia aztertu nahian. Horra Azkue euskaltzalea, hiztegegilea, gramatikalaria, hizkuntzalaria, etnografoa, musikagilea, ipuingilea eta Euskaltzaindiaren sortzailea. Horra, Azkue abadea eta elizgizona be.

Ezin baina herria ahaztu, eta udaro-udaro Lekeitiora etorten zan ha, urte guztiko kezkek bertan arintzera. Hamaikatxo lekeitiarrek ibiltari eta ikerlari ikusi eta ezagutu dabe Azkue abadea, Lekeition eta inguruko herrietan.

Lekeitiar horreen artean Eusebio Erkiaga idazle errimea. Haren berbetan honelakoa gure Azkue: *Gizon ederra zan, luze bai zabal. Azal zurizta, begi argia. Biziki lerdena eta andia gaztezaroon eta garedikoan; eta lehen tantaita luze bezain makur eta kakotua zahartzaroon. Arpegi borobila, masailla txurri-gorriak; ederra gizona. Bakarlanen zalea zela, latza geienbat, agintari-jitezkoa edo, irakasle-aizez joa. Biotz samurrekoa zan...Emailea...gogo onekoa...gertua eta laguntzailea...ibiltauna bezain jatuna...*

Azkueren inguruan be, ezin baztertu bestelako euskal idazleak: Lehena, aita, *Eusebio Maria de Azkue*, Nautikako irakasle eta euskal olerkari fina eta irudimenduna; gero, *Aita Kandido Basabe*, lekeitiar jesuita eta idazle iaioa,

bizkaieraren maisua eta Azkueren solaskidea, gaztaroaren urte sutsuetan; *Txomin Agirre* ondarrutar abadea, euskal idazle parebakoa eta Azkueren adiskide mina; eta *Juan Bautista Eguzkitza*, lemoar abadea, Lekeition urte luzetan irakasle eta Azkueren kidea gerra aurreko Euskaltzaindiaren zereginetan.

Euskaltzaindiaren izenean natortzue, hain zuzen be, euskeraren bizirau-penari eusteko Azkuek sortu eban erakundearen izenean. Eskerrak emotera natortzue. Eskerrak Lekeitioko udalari eta lekeitiarroi, Azkueren oroitza tinko gorde dozelako.

Azkuerena, halanda be, ulertezina da euskararena aintzat hartu barik. Bide horretan, bistan da, aurrelari behar dogu Lekeitioko herria.

Horrexegaitik, Azkue zanaren izena eta izana lotu eta jarraitu dagigun ha-rek ehun urte lehenago berpiztutako euskalgintzan.

Horretara dator gaurkoa. Lekeitiotik bertatik euskaldun guztien aurrean barriro be aldarrikatzeko: *Azkue ez da hil. Bizi-bizirik dagoz, gure artean doguz, haren gomuta eta lanak.*

Eskerrik asko